



Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Kooperatiben Elkarteak euskara alor sozio-ekonomikoan txertatuko dute

JAURLARITZA ETA EUSKADIKO KOOPERATIBAK LANKIDE EUSKARAREN ERABILERA BIZIBERRITZEAN

Kooperatibek ere euskara eta kalitatea elkartzen duen ziurtagiria inplementatu eta garatuko dute

Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Kooperatiben Elkarteak kooperatibetan euskararen erabilera biziberritzeko hitzarmen markoa izenpetu eta aurkeztuko dute. Miren Azkarate, Kultura sailburuak Eusko Jaurlaritzaren izenean eta Patxi Ormazabal, Euskadiko Kooperatiben Elkarteko presidentek, izenpetu dute akordioa, Patxi Baztarrika, Hizkuntza Politikarako sailburuordea eta Federazioko presidenteordea den Imanol Igeregi mahaian zirelarik.

Eusko Jaurlaritzaren eta kooperatiben Federazioko ordezkariak bat etorri dira akordioaren garrantzia azpimarratzerakoan, *”Lan munduan dabilzan guztien ardura eta inplikazioa behar ditu euskarak esparru sozio-laboralean benetako aurrerapausoak egiteko. Eta enpresarien elkarteekin nabiz sindikatuekin lortutako akordioei beste berri hau gebitzea, oso albiste ona dela esan dezakegu”*.

Eusko Jaurlaritzak EUSKALITen eskutik eta berarekin elkarlanean, euskararen erabilera ebaluatzeko eta errekonozitzeko eskema diseinatu du. Kalitatea eta berrikuntza euskararekin lotuko dituen ziurtagiri publikoan Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan jardungo du, kooperatibetan ziurtagiri ofizial bakar hori inplementatzeko eta garatzeko, aipatu eskemaren jarraipen eta hobekuntza prozesuan parte hartuz. Enpresetako hizkuntza-kudeaketa eta euskararen erabilera ebaluatzeko eta aitortzeko ziurtagiri ofiziala, enpresa munduan ohikoak diren bikaintasun, kalitate eta berrikuntza parametroen arabera ziurtagiri ofiziala izango da.

Euskal kooperatiben alorrean euskararen erabilera biziberritzea xede duen. Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Kooperatiben Elkartearen arteko elkarlana hau LanHitz programaren baitan txertatzen da. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, hiru foru-aldundiekin, EUDELekin eta Eusko Jaurlaritzako Industria eta Lan sailekin batera, joan den irailean martxan jarri eta une honetan enpresetara eramaten ari da LanHitz programa-markoa, alor sozio-ekonomikoan euskararen presentzia eta erabilera areagotzea du helburu.

Kooperatibak aitzindariak izan dira euskara alor sozioekonomikoan uztartzean. Euskal kooperatibek eta haien ordezkariak aspaldidanik erakutsi dute ibilbide luze horretan euskal gizartearekin konpromiso estua dutela, eta, oraingoan ere, euskal gizarteak batera egin beharreko zeregin honetan ere parte hartu nahi dute, euskararen erabilera kooperatiben eguneroko bizimoduan eta gizartean areagotu dadin.



Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak, Euskararen Aholku Batzordearen gomendioei jarraiki, enpresa-munduko euskararen normalizaziorako planak abian jarri zituen bezain pronto hasi ziren horietan kooperatibak. 1991.urtean sinatu zuten Eusko Jaurlaritzak eta Elhuyar Kultur Elkarteak lehenengo epealdi baterako hitzarmena enpresa pribatuetan euskararen erabilera sustatzeko eta proiektu pilotu haietan kooperatibak izan ziren, Arrasateko Ikerlan Teknologi Ikertegia eta hiru nekazaritza-kooperatiba. 1997an Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak enpresetarako diru-laguntza deialdia kaleratu zuen lehendabiziko aldiz. Aurkeztu ziren 13 enpresetatik gehienak (%69) kooperatibak izan ziren.

LANHITZ

Programa horren helburua da, besteak beste: Euskadiko alor sozioekonomikoan ,enpresa eta kooperatibetan, euskara erabiltzeko ekintzen nahiz euskara-planen, laguntzen eta baliabideen berri ematea eta hauen garapena eragitea. LanHitz programak lau zutoin ditu oinarri:

Lehendabizikoa, adostasuna, konpromisoa eta elkarlana lan munduko agente naturalen artean: horretara datoz 2006. urtean enpresari-elkarteekin (CONFEBASK, ADEGI, CEBEK eta SEA) eta Euskadiko sindikatu nagusiekin (ELA, CCOO, LAB eta UGT), sinatutako hitzarmenak. Hortaz, gaur Jaurlaritzak eta kooperatiba Federazioak izenpetu duten akordioa ere kontzertazio testuinguru horretan kokatu behar da.

Bigarrena, euskara plana martxan jarri nahi duten enpresa guztiei aholkularitza eta tresnak eskaintzea. Horretarako Eusko Jaurlaritza esfortzu berezia egiten ari da, urtearen amaierako Euskadiko 2000 enpresetara zabalduko den sentsibilizazio kanpainaren bitartez.

Hirugarrena, laguntza ekonomikoak ere eskaintzea euskara plana garatu nahi duten enpresei; Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aurten 2.300.000 euro jarri ditu helburu horretarako, iaz baino % 26 gehiago. Deialdian 143 enpresa aurkeztu dira, horietatik 53 kooperatibak direlarik.

Eta laugarren zutoina kalitatea eta berrikuntza euskararekin lotuko dituen ziurtagiri publikoa da.

EUSKARAREN ERABILERA BIZIBERRITZEA LAN MUNDUAN

Hizkuntzaren normalkuntzaren eta azken hamarkadetan Euskadin eman den euskararen garapena kontuan izanda, enpresa eta lan-mundua da hezkuntzaren irtenbide naturala. Horrexegatik hezkuntzan urteetan —euskal gizarteak berak, nahiz bere herri-erakundeek— egindako lan eskergak, bere segida behar du ezinbestean lan-munduan, inoiz baino prestatuago eta jakintzaz jantziago datorkigun gure gazte-jende euskalduna, lanean ere euskaraz aritu dadin, eta euskaraz ikasteari erabilgarritasunik eta onurarik ikus diezaion.

Ikuspuntu soziologiko batetik, berriz, gure gizartearen balio-sisteman eta antolaketan oro har, lana da gure bizimoduaren eta gizarte-bizitzaren zutoinetako bat, bizitzaren tarte handi bat hartzen diguna, eta gure pertzepzio subjektibo zein kolektiboetan zuzenean eragiten duena. Garrantzitsua da, hortaz, alor honi eragitea, besteak beste euskara biziberritzeko lanari sendotasuna eta heldutasuna emango dion esparruetako bat delako, eta beste esparru batzuei eragiteko/sendotzeko trazio-indar handia duelako.



Honetaz guztiaz jakitun, orain hamabost urte inguru (1990ean) Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak abian jarri zuen alor sozioekonomikoan euskararen erabilera areagotzeko programa. Hasieran proba gisa hasi zen programa —abiapuntu ona zuten enpresa handiak aukeratuz, eta berriazko metodologia nahiz interbentzio-moduak sortuz— sendotuta dugu, 2006. urte hasieran 150 enpresa eta kooperatiba inguru ziren euskara planak abian zituztenak, horietako asko izen eta prestigio handikoak, gainera. Kultura sailburuak azpimarratu duenez, *”gizarte honek eskerrona adierazi nahi die euskara txertatze-lanetan aitzindari izan ziren enpresa eta kooperatiba horiei guztiei”*.

Hala ere ekimen hau hedatu eta zabaldu beharra zegoen nahitaez, beren lana euskaraz edo euskaraz ere egin nahi duten enpresak, gero eta gehiago izan daitezten. Miren Azkarate, Kultura Sailburuaren hitzetan, *”hortik datorkeo garrantzia enpresari elkarrekin, sindikatu nagusienekin eta kooperabiekin abian den lankidetzari, alor sozioekonomikoko eragileek, euskal gizarteak batera egin beharreko ibilbidean, euskararen erabilera normalizatze-lanean parte hartu nahi izan dute, bat eginda euskararen erabilera areagotu dezagun gure eguneroko bizimoduan”*.

Bilbao, 2007ko uztailearen 12a



Gobierno Vasco y las cooperativas vascas acuerdan integrar de forma sistematizada el euskera en el mundo cooperativo

GOBIERNO Y CONFEDERACIÓN DE COOPERATIVAS DE EUSKADI COLABORAN EN LA PROMOCIÓN DEL USO DEL EUSKERA EN EL MUNDO SOCIOLABORAL

Las cooperativas se implicarán con el Gobierno Vasco en el desarrollo e implantación del Certificado oficial de calidad

El Gobierno Vasco y la Federación de Cooperativas de Euskadi han firmado y presentado el acuerdo marco de colaboración para la promoción del uso del euskera en el ámbito de las cooperativas. El convenio ha sido firmado por la Consejera de Cultura, Miren Azkarate, en representación del Gobierno Vasco y por Patxi Ormazabal, Presidente de la Federación de Cooperativas de Euskadi, en un acto que ha contado con la presencia de Patxi Baztarrika, Viceconsejero de Política Lingüística y Imanol Igeregi, Vicepresidente de la Federación de cooperativas.

Los representantes del Gobierno Vasco y de la Federación de Cooperativas de Euskadi han coincidido en subrayar la importancia del acuerdo y la trascendencia del mismo, por *“la importancia y fuerza tractora del ámbito socio-laboral en el proceso de recuperación de las funciones sociolingüísticas de un idioma. En este campo como en otros, el euskera necesita del apoyo y la implicación de todos los agentes del mundo laboral. Por ello, es una gran noticia poder añadir este entre Gobierno y cooperativas a los acuerdos suscritos en el año 2006 con las asociaciones empresariales y con los sindicatos mayoritarios de la Euskadi?”*.

La Viceconsejería de Política Lingüística de la mano y en colaboración con la Fundación Vasca para la Calidad (EUSKALITI) diseñado un esquema de evaluación y reconocimiento de los procesos de normalización del uso del euskera en las empresas. La Confederación de Cooperativas de Euskadi colaborará con el Gobierno Vasco para implementar y desarrollar el único certificado oficial, tomando parte en el proceso de seguimiento y mejora del esquema mencionado. El certificado público asocia el euskera con la calidad y la innovación, se trata de un certificado oficial para evaluar y reconocer la gestión lingüística y el uso del euskera de las empresas, atendiendo a parámetros de excelencia, calidad e innovación, según criterios habituales en el mundo empresarial.

El acuerdo de colaboración entre la Confederación de Cooperativas de Euskadi y el Gobierno Vasco para la promoción del uso del euskera en el ámbito de las cooperativas vascas se incluye en el programa LanHitz, para el fomento del uso del euskera en el ámbito socioeconómico LanHitz se está aplicando en el entorno sociolaboral y fue puesto en marcha el pasado mes de septiembre por Viceconsejería de Política Lingüística, junto con las tres diputaciones forales, EUDEL, y los departamentos de Industria y Trabajo del Gobierno Vasco.



Las cooperativas vascas han sido pioneras en la promoción del uso del euskera en su entorno laboral. De hecho, cuando la entonces Secretaría General de Política Lingüística, en la actualidad Viceconsejería de Política Lingüística, atendiendo las recomendaciones del Consejo Asesor del Euskera comenzó al inicio la década de los noventa a elaborar una metodología y una serie de criterios concretos para la normalización del euskera en el mundo de la empresa, las cooperativas estuvieron en primera línea de compromiso. En ese contexto, el Gobierno Vasco y la Asociación Cultural Elhuyar firmaron en 1991 un acuerdo para un primer período, con un objetivo tan claro como específico: la elaboración de proyectos pilotos para promover el uso del euskera en las empresas privadas y entre los proyectos piloto se contó con la presencia de cooperativas: Ikerlan, Centro de Investigaciones Tecnológicas de Arrasate, y tres cooperativas agrarias. Posteriormente, cuando la Viceconsejería de Política Lingüística publicó por primera vez (en 1997) una convocatoria de fomento dirigidas a las empresas, del total de las primeras 13 empresas que solicitaron esas ayudas, una mayoría (69%) eran cooperativas.

LANHITZ

LanHitz es el programa marco para el fomento del uso del euskera en el mundo sociolaboral y tiene por objeto dinamizar, asesorar e informar de manera presencial y directa, a las empresas que así lo deseen, sobre las estrategias, ayudas y servicios para la integración del euskera en el mundo del trabajo. Precisamente es en esa iniciativa integral donde se integra el acuerdo de colaboración entre la Confederación de Cooperativas de Euskadi y el Gobierno Vasco para la promoción del uso del euskera en el ámbito de las cooperativas vascas. De hecho, el programa LanHitz se basa en cuatro pilares:

En primer lugar, el acuerdo, el consenso, el compromiso y el trabajo conjunto con los agentes naturales del mundo laboral: de ahí los convenios suscritos en el año 2006 con las asociaciones empresariales y con los sindicatos más representativos de Euskadi. Contexto de concertación en el que se incluye el acuerdo rubricado hoy.

En segundo lugar, ofrecer asesoramiento y herramientas a todas las empresas que quieran poner en marcha un plan de euskera. Para ello, el Gobierno Vasco está realizando un esfuerzo especial por medio de una campaña de sensibilización que llegará a 2.000 empresas de Euskadi antes de finalizar este año.

En tercer lugar, ofrecer también ayudas económicas a las empresas que quieran desarrollar un plan de euskera. A través de la convocatoria pública, este año la Viceconsejería de Política Lingüística ha destinado a tal fin, 2.300.000 euros, un 26% más que el pasado ejercicio. En la convocatoria se han presentado 143 empresas, y hay que destacar que 53 de ellas son cooperativas.

Y el cuarto pilar, es el certificado público que asocia el euskera con la calidad y la innovación.



LA PROMOCION DEL USO DEL EUSKERA EN EL MUNDO SOCIOLABORAL

Desde el punto de vista de la normalización del uso del euskera, el ámbito laboral es la salida natural al mundo de la enseñanza, que ha sido el ámbito donde se han centrado buena parte de los medios y esfuerzos realizados hasta ahora. Por ello, es necesario que ese esfuerzo tenga su continuación en el ámbito laboral, posibilitando que los avances conseguidos en conocimiento y uso en la escuela tengan continuidad en los diferentes ámbitos de uso de la vida adulta.

Conscientes de todo ello, en 1990 el Gobierno Vasco, desde la Viceconsejería de Política Lingüística, puso en marcha un programa piloto de normalización del uso de euskera en el mundo laboral, contando para ello con la colaboración diferentes empresas vascas. Se crearon, asimismo, la metodología, herramientas y modelos de intervención específicos para ello; y hoy existen empresas de servicios empresariales especializadas en el desarrollo de planes de euskera para empresas. El año 2006 un total de 150 empresas y cooperativas habían implantado planes de este tipo.

La Consejera de Cultura ha querido aprovechar la ocasión de la firma del acuerdo de colaboración con las cooperativas de Euskadi para *agradecer a todas las empresas que se han desarrollado planes de euskera y a todos sus responsables y trabajadores el esfuerzo de todos estos años y el habernos mostrado el camino a seguir. Pero es necesario extender este tipo de iniciativas a un mayor número de cooperativas y empresas. De ahí la importancia del acto que hoy presentamos, pues muestra la disposición que los máximos representantes del mundo cooperativo de Euskadi a colaborar en esa labor, y su compromiso para colaborar con la sociedad vasca también en la revitalización del euskera.*

Bilbao, 12 de julio de 2007